

EUSKAL CURRICULUMA GENERO IKUSPEGITIK

1. SARRERA

Euskal Curriculumuma, jendarte eredia birsortzeko baino, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile izan behar du, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde eginez. Batetik, ezberdintasun sozialak gainditzeko balio izango du, eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko.

Euskal Curriculumumak beraz, oinarrizko zeregina bete behar du eskubide zein aukeren berdintasuna bermatuak izan daitezen. Bereizketa gaindituko duen eta eraldatzailea eta sortzailea izango den Euskal Curriculumuma, integrala izango dena genero perspektiba txertatuz. Integraltasunez landu beharra dago: hezitze, prestatze eta erreziklatzera lagundu eta bultzatuz, transformazio eta eraldakuntzarako bitarteko izanez, sexuen arteko erlazio berriak sortzera lagunduz, euskal emakumeok bizi dugun eta historian zehar bizi izan dugun gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera ezberdintasunei aurre eginez...

Euskal Curriculumari buruz hitz egitean, kontzeptuetatik haratago doazen hezkuntzako beste hainbat aldagairi erreparatu behar genioke. Adibidez, ze nolako eredia izan behar duen Euskal Curriculum horrek, bere baitan dituen beste hainbat aspektu, berebizikoak direnak, pertsonaren eta jendarte eredu berri baten eraikuntza eta eraldaketan.

Euskal Curriculum feminista bat, non emakume aldagaia kontutan izango den, pertsonak balore feministetan hezituak izango diren eta etorkizuneko euskaldunek euskal emakumeek Euskal Herriari eta munduari egindako ekarpenen ezagutza izango duten. Gure memoria historikoa berreskuratua izateko, euskal emakumea izan dena eta dena ikertua izateko eta ondorengo belaunaldiak ezagutzeko. Emakumeon ekarpenak behingoz aintzat hartuak izan eta hauen ereduak eskoletan irakatsiak izateko.

2.- ARLOAREN DIAGNOSTIKOA

2.1.- Eragileen tipologia

- 1.- Mugimendu Feminista: Euskal Herriko Bilgune Feminista
- 2.- Hezkidetza lantzen duten Hezkuntza Eragileak. Astialdi eta formakuntza alorrean, Hezkuntza Ez Arautuan dabilen: Urtxintxa
- 3.- Arloari zuzenki loturik dagoen gai bat espezifikoki lantzen duten eragileak: Sexune: sexualitatea eta hezkuntzaren inguruan.
- 4.- Hezkuntza alorreko emakume solteak.
- 5.- Emakumeak.

2.2.- Eragile horiek hezkuntzarekin duten lotura:

Urtxintxa:

Nahiz eta Astialdi eta Hezkuntza ez formalerako eskola izan, hezkuntza arautuan era ezberdinetan eragiten du: prestakuntza (guraso, ikasle eta irakasleei zuzenduta), ikerketa (hezkidetza diagnostikoa), materiala sortzen (buletin hezkidetzailleak), jolasak dinamizatzen (jolas ez sexistak, ginkana ez sexistak).

Urtxintxak arlo honi dagozkion materiale kopuru handia eta anitza argitaratu izan du.

Batez ere, hainbat jarduera edukatibo edo dibulгатiboak burutzen ditu.

Sexune:

- Haur, gazte, irakasle eta gurasoekin lan Sexu Heziketan. Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilerra, Erdi Mailako zikloetan, elkarre ezberdinetan.
- Hizkuntzaren erabilera parekidearen inguruko ikastaroak eskola ezberdinetan eta ELA sindikatuan.
- Hizkuntzaren erabilera parekidearen eta elkarreragiketa inguruko hitzaldiak eskola ezberdinetan.
- Hezkidetzaren inguruko saioak eta monografikoak (Urtxintxan, Gipuzkoan).
- Ipuin hezkidetzailleak aukeratzeko irizpideen azterketa eta metodo "tesina-lantxo" eta ikastaroa burutu du.
- BEZAINgo Sexu hezitzaileak formatzeko ikastaroa ematen 4 urtez.
- Emakume talde eta gazte taldeetan sexualitate eta sexuen arteko harreman hierarkikoen inguruko ikastaroak ematen.

Euskal Herriko Bilgune Feminista:

- Euskal Herriko hainbat emakumerekin burututako topaketetan hezkuntza alorreko diagnostikoa burutu zen genero perspektibatik aztertua. Hortik lan ildo batzuk markatu eta horien gaineko lanketa.
- Diagnostiko horretatik irakurketa bat egin eta Minimoen Taula sortu: hau Hezkuntza eragile ezberdinengana eramane eta beraiena egin zuten (euren oinarrietan kontuan hartua izango zenaren konpromisoa hartuz).
- Hezkuntza eragileekin matrikulazio kanpainaren testuinguruan hezkuntza parekide baten beharraren aldeko agerraldia, irakurketa laburra eginez, konpromisoak hartuz eta gurasoei arreta deituaz.
- Euskal Unibertsitateari ekarpena.
- Proiektu ezberdinetan (hezkuntza alorrekoak) genero perspektiba txertatzeko bitartekoak eskainiz.
- Hezkidetzatailer eta hitzaldiak eskola ezberdinetan, gazte taldeei...
- Formakuntzatailer edo hitzaldiak: sexualitatea, emakumeon historia Euskal Herrian...
- Iritzi artikulu edo monografikoak aldizkari eta egunkari ezberdinetan...
- Gazte talde ezberdinekin egindako hausnarketa elkartrukatu edo formakuntza eman asmoz.
- Ikasleen dinamiketan genero perspektiba sartzeko laguntza ematen, elkarlanean.

3.- HEZKIDETZA HEZKUNTZA SISTEMAN

SARRERA

Azalpen historikoa labur bat egitean, Hezkuntza sistemaren oinarritzko antolaketa fase ezberdinetan banatu ahalko genuke:

0.Fasea: Gizonezkoak bakarrik (hasiera baten dirudunak soilik) zeukaten hezkuntza bat jasotzeko aukera. Emakumeak etxean geratzen ziren eta garapen intelektuala beraien kabuz eta kasu askotan ezkutuan egin behar zuten.

1.Fasea: Ikastetxe Tradizionalak

Ikastetxe tradizionalen azkeneko kasuak 80eko hamarkadan eman ziren. Hezkuntzan zegoen egitura zela eta, klase ezberdinetan biltzen ziren neskek eta mutilak. Klase bakoitzak, curriculum zeharo ezberdindu zuen, eta bere generoaren arabera hezkuntza jasotzen zuen. Horrela, neskek emazte on eta ama izateko, eta mutilak produkzioarako prestatzen zituen.

2. Fasea: Eskola mistoak

Mugimendu pedagogikoen sorrerarekin batera, berrikuntza nagusi bat sartuko da eskola antolakuntza edo egituran: gela/eskola mistoak. Lehen aldiz, espazio berean batuko dira, curriculum berarekin, neskek eta mutilak. Ikastolen mugimendua aipatu beharra dago erronka honetan.

Hala ere, egiturazko arazoa bere horretan mantendu zen. Ez zen nahikoa bi kolektiboak toki berean biltzea curriculum bateratuaren inguruan, gero gelan bertan, kalean ematen diren diskriminazio egoerak errepikatzen badira. Hots, inolako proiektu hezkidetzailerik gabe eman da prozesua, eta horrek ekarri du kalean garaile ateratzen den kolektiboaren gailentzea, eskolan ere ematea; kolektibo maskulinoarena alegia.

3.Fasea : Etorkizuneko eskola ereduak.

Hezkidetzak bere oinarritzko irizpideen baitan hartu eta aintzat izango duena curriculum eta eskolaren antolaketa osoan.

HEZKIDETZAREN erabilpena. Hona hemen bere definizioa:

Bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den “pertsonen hezkuntza” litzateke. Irizpide sexistak jarraituz, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balore, portaerak, e.a. kontutan hartu gabe hezteak da. Pertsona autonomoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak garatzea ahalbidetzeko helburuekin.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun eta ezberdintasunetatik eta bi ereduak, maskulino eta femeninoa, integrazioetik abiatu behar deneko prozesua suposatzen du.

Baturik eta banaturik, neskatik eta mutikoei egindako giza sozializazio prozesua, zeinean helburutzat, jaiotzako jatorria eta sexua izandakoak izanik ere, garapen pertsonala bultzatzen duen jarduerak sistematikoki ezartzen den, eraikuntza sozial komuna lortzeko. Neska eta mutilen izaera ezberdintasunak onartuz, aukera berdintasunean oinarritutako hezkuntza parekidea.

Hezkuntza sisteman parekidetasuna lortzeko metodologia didaktikoa.

Parekidetasunaren ideologian oinarritzen da, baina haratago doa, askatasuna, ezberdintasuna eta elkartasuna gehituz.

Kontzientea den prozesu hezitzailea da, estereotipo sexualak alde batera utzirik ezberdintasun pertsonalak onartzen dituenak. Bere gaitasun propioak ezagutzen dituzten pertsona autonomo, justu, kritikoa eta solidarioak hezteko asmoz. Pertsonaren garapen integrala lortu nahi da.

Hezkidetzak pertsona guztiak gizaroaren arabera hierarkizaturik ez dauden, balio, portaera, arau, espektatiben sistema batean berdinean prestatzea esan nahi du. Berdintasunetik, eskubide gisa; ezberdintasunetik, pertsonen, emakume eta gizonen, identitatearen berezko ezaugarri bezala, abiatu behar deneko prozesua suposatzen du; baita bi ereduak, maskulino eta femeninoa, integrazioetik ere.

Egun, arazoa ez da emakumeak hezkuntzara, irakaskuntzara, ikerketara eta kudeaketara iritsi ahal izatea baizik eta jarduera horietan duten lekua, bizi duten egoera: hautatzen dituzten titulazioak eta ezagutza arloak, beren ibilbide akademikoak eta profesionalak, botere guneetan duten statusa, irakasten diren edukiak, erabiltzen diren metodologiak, baliabide didaktikoak, ebaluazio irizpideak eta tresnak..., onartzen diren aurrekontuak eta arautegiak..., azken finean, hezkuntza jardueretan oharkabean geratzen den sexu bereizkeriak emakumeen auto-kontzeptuan eta lorpen-itxaropenetan eragiten dituen efektuak.

Baina gaur egun, oraindik ere, ikastetxeak mistoak badira ere (gehiengoak behintzat), diskriminatzen jarraitzen dute. Eta honek, emakumeengan zapalkuntza iraurarazten du. Ikasgaien ikuspegia guztiz androzentrikoa izatean gaiz, ikastetxeetan egunerokoan ematen diren osagai sexistak oraindik ere presente dira (ageriko edo ezkutuko curriculumean dela).

Gaur egun indarrean dauden Hezkuntza Sistemen funtzioak

Hezkuntza, jendarte patriarkar neoliberalaren isla garbia da.

Hezkuntza Sistemak kapitalaren eta estatu inperialisten mesedetan antolatzen dira eta egungo antolaketaren erreprodukzioa eta mantenua bermatzea dute helburu, jendarte eredu zatikatzailea ezarriz. Orokorrean, jendarte kapitalista eta patriarkar honi zuzenduak dira: bai nazionalki, sozialki eta baita genero kontuari dagokionez. Gainera,

Euskal Herrian dauden Hezkuntza Sistemak, arrotzak dira eta kultur eredu arrotzak bultzatzen dituzte pentsamendu bakarra inposatuz. hauek zeregin zehatzak betetzen dituzte, klase, sexu eta nazio ikuspegi batetik, funtzio garrantzitsu eta era berean zapaltzaileak dituzte. Finean, herri, klase eta sexu zapalkuntzarako tresna da. Euskal emakumeon bazterketaren legitimatzaile ditugu.

Edukia androzentrikoak: Emakumea ez da agertzen.

Ikasgaien ikuspegia guztiz androzentrikoa da. Gizonen ikuspegitik dago dena aztertua eta planteatua. Gizonezkoen mundu batetik jasotako edukiak dira eta gizonezkoen mundu batera bideratuak. Gizonezkoak dira protagonistak emakumeak ezkutuan geratzen direlarik. Garrantzia gutxi ematen zaio emakumeon paperari jendarte ezberdinetan: ekonomian, jendarte-harremanetan, literaturan, artean...

Euskal emakumeen izaera eta ekarpen soziala, ekonomikoa eta kulturala isilaraziak eta gutxietsiak izaten dira sistematikoki. Balio akademiko edo sozialik gabekoa (ez dira akademikoki transmititzen). Eta agertzen ez dena ez omen da existitzen.

Ondorio bezala, gaur egungo Hezkuntza Sistemek emakume eredurik gabe uzten dituzte ikasleak. Ezinbestekoa da euskal emakumeen erreferentzia eta eredu anitza berreskuratzea ikasleen nortasun-garapen egokia bermatzeko, identitate kolektiboa eta norbanakoa orekatzeko ere.

Ebaluazioa

Ebaluazio tresna eta irizpide ezegokiak erabiltzen dira.

Emakumeei balorazio eskasa ematen zaie, euren eta euren esperientzia eta eginkizunari. Gainera, espektatiba murrizak ezartzen zaizkie, arreta gutxiago eskaintzen zaie eta alboratuak eta gutxiagotuak izaten dira...

Curriculum ezkutua

Curriculum ezkutuaren garrantziaz ez jabetzean eta kontutan ez izatean, ez da planifikatzen edota arretarik jartzen, eta ez dira hau aztertu eta ebaluatzeko irizpiderik markatzen. Ez dagoena idatzia zailagoa baita hortaz konturatu eta ebaluazio sakon bat egitea.

Beraz, gaur egun Euskal Herrian ezarriak ditugun Hezkuntza sistemak ez dira parekideak. Nahiz eta askotan identifikatzeko zaila izan, hezkuntzaren jarduera guztietan indarrean dirau sexu bereizkeriak. ikastetxeetan egunerokoan ematen diren osagai sexistak oraindik ere presente dira (ageriko edo ezkutuko curriculumean dela), Ikasgaien ikuspegia guztiz androzentrikoa izatean gaiz, edukietan emakumeak ahaztuak eta ezkutatuak izateaz gain, etorkizuneko pertsonak egun jendarteak gorai patzen dituen balore maskulinoetan hezituak dira... Emakumeak eredu “unibertsalerantz”, hots, eredu “maskulinorantz” bideratuak dira; emakumeei ezarritako rola gutxietsiak direlarik.

Sozializazio prozesua

Balioen transmisio prozesu honek, arau eta espektatibei dagokionez, funtzio homogeneousatzailea dauka eta sexua, maila sozio-ekonomiko, kulturalari dagokionez, funtzio ezberdintzailea betetzen du.

Sozializazio prozesua ez da bera gizonetzkoa edo emakumetzkoa izanik. Horrela, emakumeak eremu pribatura eta gizonak eremu publikora bideratuak dira. Eta era berean, gizonak produzitza sozializatuak diren bitartean, emakumeak erreproduzitza.

Baloreak eta rola

Etorkizuneko pertsonak egun jendarteak gorai patzen dituen balore maskulinoetan hezituak dira... Emakumeak eredu “unibertsalerantz”, hots, eredu “maskulinorantz” bideratuak dira; emakumeei ezarritako rola gutxietsiak direlarik.

Baloreak ere “maskulinoak” izaten dira: norgehiagoka, handinahia... Noizko esfortzuari edota irmotasunari eskainitako saria?

Emakumeei balorazio eskasa ematen zaie, euren eta euren esperientzia eta eginkizunari. Gainera, espektatiba murrizak ezartzen zaizkie, arreta gutxiago eskaintzen zaie eta alboratuak eta gutxiago izaten dira...

Rola

Sexuaren arabera ezarriak diren rola barneratu eta hauen arabera bizitzera bideratuak dira. Emakumeak eremu pribatura eta gizonak eremu publikora bideratuak.

Egokitutako rola jarraitza bideratuak dira ikasleak irakasleen partetik: estereotipoen menpe espektatiba ezberdinak izaten dira eta horien arabera bideratuak izango dira ikasleak. Baina arazoa ez da identita-eredu, rol edo balore ezberdinak ezartzea; arazoa sortzen da sexu bati ezartzen zaizkienak bigarren mailakotzat jotzean.

Kultura maskulinoaren rola orokortzeak (arrazionaltasuna, abstrakzioa, adimen logiko-formala,...) emakumeen berezko kultura ezabatu egin du luzaroan (afektibitatea, samurtasuna, intuizioa, harremanetan sentikortasuna,...) Horrela, lehenengoetan oinarritutako prestakuntza plan soziohezitzaileak diseinatu dira, bai emakume bai gizonen zuzenduak, emakumeen kultura ezkutatu, baztertuz eta diskriminatuz. Arlo honetan, berriro ere, gizonak ez dute berau ezagutzeko aukerarik izan eta emakumeek bere ezagupenak, harremanak izateko eta egiteko moduak ez baloratzen ikasi dute.

Proposamen hezkidetzak praktika hezitzailean desagertu edo baztertuz geratu diren emakumeek garatutako balore, ezagutza, trebetasun, gaitasun eta eginkizun historikoak sartzea esan nahi du. Emakumearen kulturaren alde positiboak berreskuratzean datza, baita estentsiboak egitean ere, gizateriaren zati bat direlako eta kultura kolektiboaren zati direlako ere.

Materiala

Materialari dagokionez, testu –liburuetan osagai sexistak dituzten irudi, adibide eta komentarioak maiz aurkitu daitezke. Ipuinetako protagonistak kopuru handi batean gizonak direlarik, eta emakumea tradizioz kokatu zaion paperetan aurkitzen dugularik: gehienetan eremu pribatuan eta izaera dependiente batekin.

Hizkuntzaren erabilera

Hizkuntzaren erabilera sexista. Mintzaira maskulino eta sexista kasu askotan erabiltzen da honen inguruko hausnarketa, kritika eta aldaketa egin gabe. Komentario sexistak.

Emakumeei modu batez eta gizonei beste modu batez zuzendu. Azalpenak ematean era ezberdinean zuzendu.

Lan banaketa

Lan banaketa edo ardura banaketa sexuaren arabera izaten da: emakumeek garbitasuna eta txukuntasuna dutela ardura eta gizonek indar fisikoa behar duten egin beharretara zuzenduak direlarik.

Harremanak

Harreman sistema hierarkiakoa eta biolentzian oinarritua: estereotipo sexistak, rol sexistak, jarrera sexistak.

Neska-mutilen harremana txarra izaten da edo ez da existitzen, hauek sexuaren arabera lagun-taldeak osatzen dituztelarik eta hau hezitzaileen partetik naturalizat hartua delarik.

Ikastetxearen antolamendua

Ikastetxearen antolamenduari eta bertan emakumeak duen presentziari erreparatzean, ikerketara, kudeaketara iritsi eta jardura horietan duen lekua eta bizitako egoera erreparatu eta aztertu behar da: hautatutako titulazioak eta ezagutza arloak, ibilbide akademiko profesionalak botere guneetan duten statusa...

Soinketa eta jolasak

Gizonak pribilegiatuak dira. Eskolaz kanpoko jarduerak adibidez gizonekoei bideratuak dira. Ordu-tegiak hauen taldeen arabera egingo dira eta txapelketetako sariak ere handiagoak izango dira (kopa handiagoak...). Jolas-tokia aukeratzean ere lehentasuna izango dute. Eta hauei gehiago motibatu eta animatuko zaie.

Soinketako klaseak, normalean mutilei gustatu izan zaien ekintzen bidez programatua izango da eta hauek ebaluatzeko irizpideak ere beraien gaitasunen arabera: indarra, abiadura, erresistentzia... Gainera, mutil batek, neska bat baino maila txikiagoa erakustean, hau barre egiteko motiboa izango da eta berarentzat “umilazioa”. Atsedendietan ere, mutil batek neskekin jolastea erabakitzean, horiek “emakumeen kontuak” direla entzun beharko du eta askotan burlak jaso ere. Honen arrazoia, emakumei egokitutako rolak gutxietsiak diren bezala, emakumeok burututako ekintzak ere horrela direlako da.

Gogoratu behar da orain ez asko arte emakumeak kirola egiteko aldenduak izaten ziren denbora horretan “emakumeon gauzak” zirenetan trebatzeko erabiltzen zelarik (etxeko lanak). Horrela emakumeentzat kirol instalaziorik ere ez ziren existitzen. Oraindik ere leku askotan, emakumeen aldagetik duten leku eta egoera ikustekoak dira! Gerora banatuak izan dira kirolaren arabera.

Espazioaren banaketa

Espazio zabalena gizonak okupatuko dute, emakumeak hor jartzean modu txarrean kanporatuak izango dira. Emakumeak beraz, jolas-tokiaren eremu txikia erabili beharko dute, gizonak beste guztiaren jaun eta jabe diren bitartean.

Partehartzea

Klasean, gizonen partehartzea handiagoa izaten da. Hauen presentzia, sarritan gutxiago badira ere, nabariagoa izaten da hauek hori horrela izateko ahaleginak egiten dituztelarik.

Jarduera, ekintza ezberdinetan, gizonak izaten dira protagonistak edo hau bilatzen dutenak. Emakumeak bigarren plano batean geratuko dira.

Sexualitatea

Sexualitatearen gaia tabua da. Beldurrez bizi eta ulertu behar da. Ez da txikitatik naturaltasunez honi buruz hitz egiten, ez da klasean ikusten den gaia. Eta hau ikasten denean, azkeneko mailetan izaten da, eta betiere ugalketa funtziora bideratua harreman heterosexualetan oinarritua eta familia eredu bakarraren estruktura oinarri duelarik. Askoz jota, antisorgailuei buruz hitz egingo da eta hauen artean kondoa soilik ezagutzera emango da.

Eraso sexistak

Gai larria da eta egunerokoa gainera eskola eremuan ematen diren erasoak. Eta are larriagoa ikastetxeak eta irakasleek honen aurrean hartzen duten jarrera pasiboa. Norberaren pribatutasunaren eraso fisiko eta psikikoak (ukituak, komentarioak, burlak...) egunerokoak dira eta irakasleek hauekiko ez dute jarrera gogorrik agertzen, ez-ikusia eginez edota askoz jota ez dela egin behar eginez baina ikasleekin hauen ondorio eta zergatia aztertu eta azaldu gabe. Adin kontuak omen dira... Arazoen aurrean jarrera pasiboa hartu egiten da honi aurre egin beharrean, eta din kontuak direnaren argudiopean...

Orokorrean eta laburtuz:

Hezkuntza sozializatorako oinarrizko bitartekoa da, horregatik, hezkuntzaren analisia egitean, alde batetik, emakumeen presentzia, kopurua eta kokapena aztertu beharko ditugu eta, bestetik, hezteko bitarteko honek sexuen arteko bereizkerian zer-nolako eragina duen ikusi beharko dugu, ziur baikara emakumeon askapen prozesuan bitartekorik garrantzitsuenetarikoa dugula hezkuntza, bai nortasun-garapenerako aukera berriak zabaltzeko, bai prestakuntza akademikoa hobetu eta baita lanerako bideak eskaintzeko ere.

Era berean, nabarmena da jendarte patriarkarraren isla eta birsortzailea dela, bai eta euskal emakumeon bazterketaren bermatzaile ere.

Hezkuntza jardueraren sexismoa salatu beharra dugu: jarrera eta jokabide sexistak, emakumezko ikasle eta irakasleenganako balorazio eskasa, arreta gutxiago, itxarobide murriztak... Oro har, -gehiengoa izan arren eta ekimen gehienetan euren eragina erabakigarria izan arren- emakumeak ez dira agertzen eta gutxietsiak dira.

4.- HEZKIDETZA EUSKAL CURRICULUMEAN

Hezkuntza funtzioak

Hezkuntza Sistema, sozializatorako oinarrizko bitartekoa da, eta jendarte eredu birsortzeko baino, eraldakuntzarako bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile bilakatu behar du, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde eginez. Batetik, ezberdintasun sozialak gainditzeko balio izango du, eta bestetik, sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko. Parekidetasunean oinarritutako Euskal Herri sortzeko.

Herriaren beharretara egokitutako Euskal Curriculum parekidea sortu beharra dago. Euskalduna eta euskal kulturaren oinarritua, partehartzailea, parekidetasunean oinarritua... Euskal hizkuntza, kultura eta bizimodua berreskuratu eta lantzen lagunduko duena.

Bereizketa gaindituko duen eta eraldatzaile eta sortzailea izango den Euskal Curriculum, integrala izango dena genero perspektiba txertatuz. Integrala izan behar du: hezitze, prestatze eta erreziklatzera lagundu eta bultzatuko duena, transformazio eta eraldakuntzarako bitarteko izango dena, sexuen arteko erlazio berriak sortzera lagunduko duena, euskal emakumeok bizi dugun eta historian zehar bizi izan dugun gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera ezberdintasunei aurre egingo duena, euskal emakumeen ikusitasuna bermatu eta ondarea berreskuratu biziraun dezan. Euskal Curriculumak, euskal emakumeen ezaugarri bereizgarriak ikertu eta landu behar ditu. Emakume-aldagaia uztartuz joan beharko du sexu bien arteko eskubide eta aukera berdintasuna lortzeko. Emakumeon egoeraren bilakaera eta patriarkatuaren ondorio eta zapalkuntza historikoen arrazoiak agertu behar dira; emakumeen presentzia, erreferentziak, eredu anitzak eta partehartze soziala (kultura, zientzia, politika, eguneroko bizitzan...) berreskuratuz. Emakume eredu ezberdinak agertuz erabiliko diren adibide, irudi... edozein eremu edo funtzioetan. Emakumeek burututakoaren lanketa eta hauen lanbideak azpimarratuz eta merezitako garrantzia emanez, emakumei egokitu zaizkien lanbideak errekonozituz eta irakatsiz: sukaldaritza, senda-belarren ezagutza eta erabilpena, emozioen lanketa...

Edukiak

Edukietan, emakumeen izaera eta ekarpena berreskuratu eta emakume ereduaren presentzia bermatuko duena, eduki sexista duen edozein materialaren bazterketa eta hezkidetzailen erabilera bultzatuko duena, emakumearen partehartzea bermatuko duena...

Ebaluazioa

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesu osoan zehar behaketa indibidual eta jarraia egin behar da. Ageriko curriculumaz gain ez da ahaztu behar ezkutuko curriculumaren ere aztertu eta hau ebaluatzea, honi ere denbora eskaini behar zaiolarik ebaluazio oso eta erreal bat egiteko.

Ezkutuko curriculum

Ezkutuko curriculumaren garrantziaz jabetu eta honen lanketa eta aldiro honen ebaluazioa egin. Eta hau ekiditeko mekanismoak izango dituen (hizkuntza sexista, espazioaren banaketa, ikastetxearen egituraketa eta antolaketa, ematen diren jarrerak, transmititutako baloreak, ebaluaketa sistema, harremanak...)

Baloreak eta rolak

Balore eta jarreraren banaketa azaldu eta aukeraketa pertsonan dagoela erakutsiko duena, eta ez jendarte patriarkarrak mailakutzen eta hierarkizatzen dituen araberako aukeraketa. Jarrera sexista zein kontsumisten aurka borrokatzeko balioko duena. Hezkidetzaren eta beraz, parekidetasuna bultzatuko duten baloreen sustapena.

Laikoa, non erlijioaren izenean emandako balore eta jendarteratze prozesuak ez diren sexu diskriminazioan oinarritutakoak izango.

Askatasuna bizitzeko zein erlazio integralak izateko heziketa duena. Norberaren askatasuna eta autonomia landu. Pertsonaren gaitasunak lortzea sexu diskriminaziorik gabe, pertsonak bezala tratatuak izatea norbanakoaren berezitasunetaz jabe eginda eta ondokoekiko errespetua bultzatuz eta balore egokiez osaturiko ingurua sortuz.

Azken finean, pertsona aske eta integralak sortzea helburu duen Euskal Curriculuma: emakume eta gizon kritikoak, elkarkideak, arduratsuak, begirunean heziak... sortuko dituenaren alde.

Materiala

Baliabideak bilatzerakoan ondo aukeratu behar dira azterketa sakon bat eginez: lanaren banaketa sozial eta sexuala eszenifikatzen dituzten liburu zein kontzeptuak ekidiko dituen, orokorrean, eduki sexistak dituen edozein materialaren bazterketa ziurtatu eta parekidetasunean oinarritutako edo material hezkidetzagileak erabiliko duena.

Hizkuntza

Hizkuntzaren ezaugarri sexistak aztertu eta kritikotasunez hauek aldatzeko lanak egin, gerora hizkuntza egokia eta sexismoa gabea bultzatzeko, hizkuntza ez sexista erabiliko duena.

Harremanak

Parekidetasunean oinarritutako harremanak sustatu.

Hezkuntza komunitatekideekiko tratua bereizkeriarik onartuko ez duena eta honetarako bitartekoak jarriko dituen, errespetuzko eta parekidetasunean oinarritutako harremanak sustatuz. Kale eta eskolan bultzatu behar da parekidetasuna. Ikasle-irakasle, irakasle-guraso, ikasle-guraso...

Metodologia

Hezkidetzaren bultzatu eta bermatuko duen metodologia partehartzailea behar du bere baitan.

Ikastetxearen antolamendua

Eremu zein maila ezberdinetan parekidetasunean oinarritutako emakumeen partehartzea.

Espazioaren antolamendua

Espazio guztiak guztiontzako. Bere barne jardueretan, bereizkeria bultzatuko ez duen espazioaren antolaketa.

Partehartzea

Eremu zein maila ezberdinetan parekidetasunean oinarritutako emakumearen partehartzea bermatuko duena.. Partehartzea, askatasunean, espiritu kritikoa heziz... (ez autoritarismo, delegazionismo, hierarkia...)

Sexualitatea

Sexualitatea era espezifikoa erakutsiko duena. Txikitatik modu naturalean landuz, taburik gabe eta sexualitatea bizitzeko eredu ezberdinak ezagutaraziz; baina afektibitatea eta komunikazioa ordea, zeharlerro gisa helaraziaz.

Hezkidetzaren transbertsal izateaz gain, ikasgai ere

Derrigorrezko asignatura beharko luke izan. Ikasgai berri bat barneratu beharko luke. Eac: parekidetasunerako baldintzak azalduz, emakumeen zapalkuntza agerraraziz, ezberdintasunak sexuak soilik markatzen dituela azalduz... Eremu pribatu eta publikoaren sexuaren arabera banaketaren ezabaketa landu. Egoera berdintasunean amatasuna, familiako beharretan... denon betebeharra maila berean dela agerrarazi. Gaiari buruz eztabaidatu, jendartearen egoera aztertu, bidegabekeriak argitaratu atera...

Gai honekiko hausnarketa eta eztabaidak sustatu behar ditu etengabe Euskal Curriculumak moduan. Eta modu ezberdinetan proposatzen dira:

- Soilik zeharlerro bezala.
- Irakasgai espezifikoa eta baita zeharlerrotasunez.
- Tutoretza orduak erabiliz... hala ere zeharlerro gisa ulertu behar da.

Euskal emakumeek bizi duten eta historian zehar bizi izan dituzten gutxitze eta diskriminazioen ondorioz, jendartearen pairatzen duten diskriminazio eta aukera berdintasun ezari aurre egiteko hezkuntzatik, euskal emakumei bitartekoak emango dizkiena: emakumeen auto-kontzientzia eta autodefentsa mekanismoak indartuz (borroka nortasuna...), laguntza zehatzak emakume multzo espezifikoei...

Hezkuntzaren bitartez, arlo ekonomikoan dauden sesgoak gainditzea eta oztopoei aurre egiteko heziketa duena.

Aurkituko diren (etorkizunean, kalean, lanean...) oztopoen aurrean ateraldi hobeagoak zeintzuk diren ezagutaraziko duena.

Euskal emakumeon baldintza sozio-ekonomikoak hobetzen: lan banaketa suspertuz, enplegu formakuntza egokia bultzatuz, ofizio aukeraketa ez sexista bihurtuz...

Emakumeon auto-kontzientzia eta autodefentsa mekanismoak indartuz: borroka nortasuna...

Hauekin batera kanpaina edo errealitate batzuen aurrean helburu zehatzagoak egon daitezke:

- Sexualitate-gorputza.
- Indarkeriaren kontra aritzea.
- Auto-estimua lantzea.

Politika integrala

Politika hezkidetzagile integral bat duena; integrala hezkuntza komunitate osoaren konpromiso eta inplikazioa beharrezkoak direlako. Hezkidetzaren aldeko egitasmoak gauzatuko dituen: besteak beste, hezitzaileen prestakuntza, testu-liburugintza, ikerketa, orientazio eta ebaluazio prozedurak...

Hezitzaileen formazioa egokitu beharra dago. Hezitzaileak hezteko bitartekoak jarri beharko dira: kurtsoak, materiala erraztu...

Euskal Curriculumak ere maiztasunez moldatu beharko litzateke beharren arabera. Betiko topikoak baztertu, Erabilitako material, metodologia eta jarrerak aztertu eta kontzienteki hauekiko erabakiak hartu. Egokiak diren baliabideen erabilpena bultzatu beharko litzateke: bideo, ipuin, albiste...

Genero begiralea

Genero begirale funtzioa duen pertsona egotea proposatzen da. ECren sortze prozesuan eta baita EC sortua dagoenean honen jarraipen zuzena egiteko.

Eragileak		Zer landu
Ikasleak: neska eta mutilei behar eta nahiei erantzunez.	Sexuak eta generoak gaituztuz pertsona bat eraiki.	Afektibitatea Gorputza Sexualitatea. Autoestima. Treibetasun sozialak ...
Irakasleak: emakume eta gizonen behar eta nahiei erantzunez.	Sentsibilizazioa (errealitatearen kontzientzia) Konpromisoa (jarreraren aldaketa) Trasmizioa (hezkidetza erabili)	Genero ikuspegitik errealitatea (agerikoa zein ezkutukoa) aztertzen ikasi. Genero ikuspegitik diskurtsoa (unitate didaktikoak, hizkera, edukiak) egiten ikasi. Genero ikuspegitik bitartekoak (materiala, laguntza, ...) bilatzen ikasi. Genero ikuspegitik irakaste eta ebaluazioa metodoak sortzen ikasi. Norbere konpromisoa zehaztu eta planifikatu. ...
Gurasoak	Sentsibilizazioa (errealitatearen kontzientzia) Konpromisoa (jarreraren aldaketa) Trasmizioa (hezkidetza erabili)	Etxeko esparrua genero ikuspegitik aztertzen ikasi. Komunikazioan eta kontsensuan oinarritutako harreman sistema sortzen ikasi. Herri zerbitzuak erabiltzen ikasi. ...
Begiraleak	Sentsibilizazioa (errealitatearen kontzientzia) Konpromisoa (jarreraren aldaketa) Trasmizioa (hezkidetza erabili)	Astialdia genero ikuspegitik aztertzen ikasi. Harreman sistema landu. Planifikazioak eta programazioak genero ikuspegitik sortu.

Gaitasunak eta Baloreak

GAITASUNAK	BALOREAK
Arrazonamendua.	Abstrakzioa
Balorazioa.	Ahozko eta ez ahozko komunikazioa.
Behaketa.	Arriskua.
Afektibitatea	Askatasuna
Adierazpena	Atsegina izan
Bizitasuna	Auto-behaketa
Seguritatea	Autokritika
Identitatea	Axolatasuna
Niaren baieztapena	Azterketa
Sentsibiltatea	Barnerapena
Elkartasuna	Bereizketa.
Autonomia	Berezkotasuna
Barnerapena	Dinamismoa
Kanporapena	Entzumen aktiboa
Gozamena	Erabakia
Gorputz komunikazioa	Errespetua.
Atsegina izan	Gorputz komunikazioa
Askatasuna	Gozamena
Erantzukizuna	Hausnarketa. Eztabaida
Sendotasuna	Intuizioa
Emozionalitatea.	Irudimena.
Adimena.	Jakinmina.
Segurtasuna.	Kanporapena
Adimena.	Komunikazio ez sexista.
	Konfiantza
	Konpromisoa.
	Kritika
	Laguntasuna.
	Laguntza
	Malgutasuna.
	Objetibitatea.
	Orekatasuna.
	Sentimenduak
	Sintesia
	Sormena.
	Tinkotasuna
	Ulerkortasuna.
	Umorea.

Edukiak

Jarrerazko edukiak	Prozedurazko edukiak	Eduki kontzeptualak
<ul style="list-style-type: none"> - Generoan oinarrituta pertsonen arteko hierarkizazioa ohartu. - Pertsonen arteko aukera berdintasuna bereganatu. - Jendartean ematen diren generoan oinarritutako estereotipoak eta rolak daudela onartu kritikoki. - Espektatibak eta lanbideetarako generoaren eragina ulertu. - Norberaren genero espektatibak kritikoki baloratu - Emakumeek jasaten duten egoera latza onartu. - Egoera sexistak bereiztu eta gainditzeko intuizioa eta erabakia erabili. - Jokaera ez sexistak barneratu. - Sexu eta egoeraren arabera portaera desberdinen onespena. - Jendarte honetan emakume eta gizonen aisialdia eta astialdia desberdina dela barneratu. - Astialdian egoera hezkidetzailleak sortzeko interesa azaldu. - Telebistan agertzen diren ereduekin kritikoa izan. - Ingurua eta norberaren azterketa kritikoa, abstrakzioa erabiliz. - Ideia berriak jakiteko interesa. - Pertsona bezala norberaren burua onartu genero eta sexua gaindituz. - Banakako lanaren aurrean gustua adierazi. - Bestean aurrean komunikatzerakoan arriskurako prestutasuna eta tinkotasuna izan. - Bat bateko iritziak bestean aurrean azaltzeko prest egon. 	<p>Sexu eta genero kontzeptuen desberdintasuna aztertu.</p> <p>Kontzeptu berri horiei buruzko eskema berriak sortu.</p> <p>Dauden genero estereotipoak bat bateko identifikazioa egin.</p> <p>Identifikazio horretan lortutakoa ikertu.</p> <p>Aurreiritzi sexistak aztertu bai jendartean daudenak bai norberarenak.</p> <p>Egoera sexisten azterketa kritikoa gauzatu.</p> <p>Ni identitatea sortzeko kutsu sexistak bilatu.</p> <p>Norberaren ezagupenei buruzko hausnarketa egin.</p> <p>Iritzi eta ideia desberdinen irakurketa egin</p> <p>Datuen bilketa eta azterketa egin ondorioetara heltzeko.</p> <p>Ideiak eta iritziak ahoz eta gorputzez adierazi.</p> <p>Sentimenduak eta nahiak kontatu, plazaratu.</p> <p>Norberaren jokaeraren azalpenak eman</p> <p>Ideiak eta iritziak trukatu dramatizazioaren bidez.</p> <p>Besteei jolasteko aukera eman.</p> <p>Jolasean esate librea adierazi.</p> <p>Lan taldeak sortu.</p> <p>Kideekin jolastu eta jardun.</p> <p>Banakako lana eta taldeko lana burutu.</p> <p>Banaka erreflexionatu.</p> <p>Komunean idatzitakoa irakurri.</p> <p>Definizio desberdinak kontrastatu.</p> <p>Talde handian emaitzak kontrastatu</p> <p>Ondorioak atera.</p> <p>Ondorioak adostu.</p> <p>Adostasunera heldu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Genero eta Sexua. - Genero estereotipoak, rolak, gaitasunak eta baloreak. - Pertsona izatea. - Ni neu. - Hezkidetzeta. - Aukera berdintasuna. - Sozializatze prozesua Genero Teoriaren arabera. - Programazio hezkidetzaillea. - Emakume eta gizonen parte hartze desberdina. - Etxeko esparrua, esparru publikoa eta esparru pribatua. - Lana eta arduren banaketa eta balorazioa. - Emakume eta gizonezko astia eta aisia. - Astialdia eta aisialdi hezkidetzaillea. - Jendarte honen emakume eta gizonen astialdia eta aisialdia. - Astialdirako eta aisialdirako jarduera hezkidetzailleak. - Ezagutza sakontzea. - Balorazio kritikoa.

<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko parte hartzeko arazoak gainditu. - Emozio eta nahiak erakutsi. - Lankideekiko errespetua eta enpatia izan denbora osoan. - Talde lanean kooperatu. - Taldekideekin iritzi eta informazioaren trukerako interesa izan. - Jarduera ez sexistak sortzeko kooperatu, errealitatetik abiatuta. - Kideekin parte hartzeko nahi izatea agertu. - Elkarrekintzarako Umorea eta dinamismoa. - Distentsioa lortzeko elkarrekintzarako joera azaldu. - Hitz egiteko txandarekiko errespetua. - Besteon iritzi edota esatearen aurrean errespetua izan. - Taldean konfiantzan iritziak botatzeko prestutasuna. - Jolasean askatasuna erabili gorputzaren bidez. - Gorputzeko komunikazioa humorez erabili. 		
--	--	--

5.- DOKUMENTAZIOA

“HEZKIDETZARAKO EREDUA SORTZEN” (Eibar, 1999ko abendua)

Autorea: M^a Jesús Apodaka, Rosi Villa

Egilea: Eibarko udala.

Dokumentu mota: Publikazioa

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera

Gidaliburu honek gogoeta, orientabide eta erreferentzia material izan nahi du hezkuntzaz arduratzen diren irakaskuntza-ikaskuntza hezkidetzailera hurbildu eta eredu horretan barneratu nahi duten guztientzat; hau da, pertsonaren garapen integrala lortzea eta, beraz, jendarte zuzenago eta parekideago bat –generoaren hierarkia sozio-kulturala gainditu eta sexu-bereizkeriarik ez duena- sortzea helburu duen heziketa –mota baten aldeko apustua egingo dutenentzat.

Eibarko hainbat ikastetxetan hiru ikasturtez izandako esperientziaz burututako lana da. Asmoa, Irakasteredua sortzea eta, hezkidetzaren ikuspuntutik, pertsonaren garapen integrala praktikan jartzea du.

“HEZKIDETZA HEZKUNTZ SISTEMAN. Hacia una educación no sexista”

Egilea: I.P.E.S Ikastaroak. Formazio koadernoak 16.zbkia (1992.eko Azaroan).

Dokumentazio mota: Aldizkako publikazioa.

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera

Aditu ezberdinen artikulua, ponentzia eta lanekin osatutako lan teorikoa da. Bost atal orokorren barruan sailkatuak aurkitu ahal dira lan hauek:

- 1.- Gizartea eta Hezkuntz Sistema
- 2.- Hezkuntz Sistemaren azterketa
- 3.- Sexismoaren azterketa eta irizpide hezkidelariak.
- 4.- Hezkuntza Sistema hezkidelariaren alde.
- 5.- Proiektu eta esperientzien aurkezpena.

Hizkuntza: gaztelera (batez ere) eta Euskara

“ESKOLAKO LIBURU LILA”

Egilea: Matarraska (1994)

Dokumentazio mota: Publikazioa.

Bilboko Alde Zaharrean biltzen ziren emakume gazte talde batek osatzen zuen 1984. urtean Leioako Unibertsitatean eginiko, “Euskadiko Emakumeen II Ihardunaldiak” burutu eta gutxira sortutako Matarraska talde feminista.

Eskolako liburu lila aurkeztu zen 1991. urtean eta bigarren argitalpena litzateke honako hau, aurreko lanari ekarpen ezberdinak gehituz osatu zuten.

Lan honen helburua da ikasgeletako diskriminazio egoerak kaleratzea eta hauen aurrean emakumeak antolatu eta erantzun kolektibo bat emateko beharraz jabearaztea.

Lana zortzi atal ezberdinen azterketan oinarritzen da. Hala nola: gizezko ereduak arautzat, hizkuntza ere sexista da, erasoak, lanbide orientazioa, sexualitatea, irakasleriaren jokabidea, zer dela eta ikasgu pribatuak bizioz beteta?, eta azkenik, antolakuntza eta ordezkari organoak. Atal bakoitzean azterketatxo bat eta emakumearen diskriminazioa azaleratzeko adibideak lantzen dira.

Jarraian ondorioen lanketa labur bat egiten da eta eraso baten aurrean hartu beharreko neurrien gomendioak ere.

“BALOREAK IRAKASKUNTZAN”. 30. monografikoa.

Egilea: HikHasi (1998ko Uztaila).

Dokumentazio mota: Liburua.

Hizkuntza: Euskara

100 orrialde.

“HEZKIDETZAREN ESKU-LIBURUA”

Egilea: Bizkaiko Urtxintxa Eskola / Emaisia elkarte (1998)

Dokumentu mota: Publikazioa

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera

41 orrialde

EMAISIA, 1997. urtean, eta Bizkaiko Urtxintxaren eskutik, jaio zen elkarte da, helburua, Astialdian eta Jarduera Soziokomunitarioaren arloan, emakumeen prestakuntza bultzatu eta hedatzea zelarik.

Txosten txiki honen bidez, EMAISIAk hausnarketarako eta ekiterako proposamen bat aurkeztu nahi du, hezkuntza ez formalaren arloan lanean ari direnei egiten ari diren jarduera aztertzea ahalbidetuko du. Baina hezitzaile eta baita pertsona guztientzako baliagarri izan daiteke.

Txosten honekin Emaisia eta Urtxintxa Eskolaren proposamen hezkidetzalea zertan datzan erakustez gain, prestakuntzan sexismoa ikusteko ezagupen batzuk eman eta aurre egin ahal izateko zenbait proposamen eskaintzen dira ere.

Hezkidetzaren definizioa astialdian aplikatzeko eskaintzen da, baita curriculum ezkutuaren azterketa egiteko pausuak ere. Astialdiko prestakuntzan hezitzailearen lanean kontuan hartzeko aspektuak aztertzen dira: jarrerak, material didaktikoa, guneak, lengoia... Agente guztien jokaerak behatzeko irizpideak luzatzen dira. Formatu txikia.

“BERDINTASUNEZKO JOLASTOKIA. Hezkidetzaren eta espazioaren gaineko baliabideen gida”

Hernaniko Udaleko Berdintasun Saila eta Berdintasun Kontseilua.

2003.

Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak sustaturiko Hezkidetzaren programaren barruan kokatzen da gida hau. Irakasle eta familientzako sentsibilizazio saioak

egin eta Hernaniko bi ikastetxeetako espazioaren erabileraren inguruan ikerketa antropologiko txiki bat egin ondoren gida praktikoa hau osatu zuten.

“JOLASA ETA JOSTAILUA” Koheziketa Koadernoak 1.

Araba eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladako Hezkuntza Batzordeak eta STEE-EILAS-eko Emakume idazkaritza.

1990.eko Urria.

“Liburu honetan, xede premiazkoa bezala hartzen da jolasaren eta jostailuaren bitartez bideratzen den sexismoa aldatu eta neutralizatzea; eta hau eskolako eguneroko zereginen lortu nahi da.”

Azalpen teorikoez gain baliabide didaktikoak ere eskaintzen dira. Hezitzaile eskaintako liburua da, geroago sakonago izan daitekeen ikerketa-gogoeta baten gisa.

Hizkuntza: Euskara eta Gaztelera.

“NOLA LANDU ETA AUKERATU HEZKIDETZAKO IKASMATERIALAK”

Autorea: Neli Zaitegi de Miguel eta M^a Jose Urruzola Zabalza (1993ko Iraila)

Egileak: Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Dokumentu mota: Aldizkako publikazioa

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera.

Gidatxo honetan, ikasgeletako materiala sexistak den ala ez aztertu ahal izateko gomendioak jasotzen dira. 16 orrialdetan biltzen den lan honek hasieran sarrera batekin hasita lege eta erakunde esparruaren zenbait aipamen burutu eta hezkidetzako ikasmaterialgintzarako orientabideak eskaintzen ditu, bai irudiari eta baita testuari dagokionez ere; .

Azkenik, ikasmateriala hezkidetzaren ikuspegitik berrikusteko irizpideak azaltzen ditu, liburuak erabilgarriak diren ala ez ziurtatzeko fitxa praktikoa bat eskaintzen duelarik. Fitxa hau edonork betetzeko modukoa da; interesgarria eta erabilgarria beraz.

“IKASTETXEAREN HEZKIDETZA-EREDUA EGITEKO GIDA: I.TOMOA”

Autorea: Begoña Salas García eta lan-kideak (1997ko Uztaila).

Egilea: Emakunde.

Dokumentazio mota: Aldizkako publikazioa.

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera

284 orrialde ditu I. tomoko argitalpenak.

Begoña Salas eta lankideak autore diren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Emakunderen lankidetzan burutu den esperientzia baten emaitzak biltzen ditu argitalpen honek. E.A.Eko hainbat ikastetxetan 1993-94; 1994-95; 1995-96 ikasturtetan zehar buruturiko esperientzien emaitzetatik dator liburu hau.

Argitalpen honek, ikastetxe proiektuak egitean edo berrikustean irakasleentzako gida izan nahi du, proiektu hauek eredu hezkidetzaille baten ikuspuntutik eginak izan daitezen. Bi tomotan biltzen diren hiru zati ditu lan honek.

Batetik, “Ikastetxearen hezkidetzaz-eredua I.H.P - I.C.P” zatia dugu eta bertan gaiaren inguruko planteamendua, teorizazioa, jarraitu den prozesua eta emaitzak jasotzen dira. Ikastetxerako hezkidetzaz eredu lantzen du hasieran, ondoren ikastetxearen hezkuntza proiektua aztertzeraz igarotzen da eta jarraian baita ikastetxearen curriculum proiektua ere. Burutu duten prozesuaren ebaluazioa lantzen da jarraian eta baita gurasoen partehartzearen nondik norakoak ere.

Bestetik “Curriculum Diseinua Hezkidetzaz Ereduan” oinarritua lana dugu eta hemen curriculum etapetako eta arloetako helburu orokor guztiak birformulatu egiten dira. Haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako helburu orokorrak birformulatzen ditu.

Azkenik, II. Tomo batean, “Ikastetxearen hezkuntza eta Curriculum Proiektua” egiteko baliabideak lana aurkitzen dugu.

“IKASTETXEAREN HEZKUNTZA – ETA CURRICULUM- PROIEKTUA EGITEKO BALIABIDEAK: II. TOMOA

Autorea: Begoña Salas García eta lankideak (1997.eko Uztaila)

Egilea: Emakunde

Dokumentu mota: Aldizkako publikazioa

Hizkuntza: Euskara / Gaztelera

107 orrialdetako lana.

Dokumentu hau Ikastetxearen hezkidetzaz eredu egiteko gida izeneko lanaren jarraipena da. Lan honen hirugarren zatia litzateke eta bertan hezkuntza eta curriculum proiektu hezkidetzailleak egiteko baliabideak lantzen dira.

Hiru atal ezberdinez osatua dago liburua. Batetik testuinguruaren azterketa egiteko baliabideak eskaintzen dira; Bestetik, familia ingurunearen azterketari dagozkion inkesten tabulaziorako plantila; Eta hirugarren atalean I.C.P egiteko baliabideak eskaintzen dira.

Testuinguruaren azterketarako, ingurunearen azterketarako inkesta nahiz plantilak eta ikastetxearen azterketa burutzeko baliabideak aurkitzen ditugu.

Familia ingurunearen azterketari dagozkion inkesten tabulaziorako plantila deritzon atalean, gurasoei egindako inkestak eta ikasleei egindako inkestak aurkitzen ditugu.

Azkenik, I.C.P egiteko baliabideetan, etapako helburuen birformulazioa, arloko helburuen birformulazioa, ikasgelaren programazioa eta jarrerak ebaluatzeko baliabideak jasotzen dira.